

GREBAREN BALORAZIOA

ZORIONAK!! ZORIONAK GUZTIOI! ZORIONAK ZUEN KONPROMISOAGATIK! ZORIONAK ATZOKO GREBAN IZANDAKO PARTE HARTZE AKTIBOAGATIK!. STEILAS kideok jakin izan genuen gurea ematen eta greba deialdiari babes handia eman genion. Hiriburuetako manifestazioen irudiak deialdiaren arrakastaren isla izan dira. Atzo, beste behin, mezu argia igorri genien KE eta enpresei: hitzarmen berria nahi dugu, benetako negoziazio nahi dugu eta prest gaude mobilizazioekin jarraitzeko berau lortzeko.

Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Hitzarmen berrirako negoziazio mahai aurreko azaroaren amaieran apurtu zen. Gure ustez, patronalek negoziazio desblokeatzeko proposamena egingo zuten greba ekiditeko. Baina 3 hilabete pasatu dira eta ez dute inolako urratsik eman. Faltsua da Kristau Eskolak negoziatu nahi izana, baita langileen eskaera guztiek ondorio ekonomiko edo ikastetxeen bideragarritasuna kolokan jartzen dutenik. Adierazpen faltsuetatik harago, negoziatorako azaltzen duten jarrera itxia erabat arduragabea da, sektorerako mobilizazio gehiago ekarriko duelako.

Hori harrigarria izan daiteke baina guretzat ez da ustekabekoa izan. *Kristau Eskolak* behin eta berriz aldarrikatzen ari da Eusko Jaurlaritzak itunpeko sarea gehiago finantzatu beharra eta ezinezkoa duela langileen aldarrikapen zilegiei aurre egin hori lortzen ez den bitartean. Ez gaitzen tranpan erori! STEILASek ez du onartuko Kristau Eskolak langileak erabil ditzan administrazioaren aurka. Patronalek ez gaituzte inon ordezkatzeko eta euren interesak baino ez dituzte babesten administrazioarekin negoziatzen dutenean; langileen lan baldintzak hobetzeko baino (0-3, Espezialistak, DBHko ekiparazioa...) bere lehentasunak betetzearren negoziatu dute.

Aurrera egingo dugu aurreko gatazkan gertatu zen bezala: zailtasun guztien gainetik hasieran ezinezkoa zirudiena errealitatea bihurtuz. Mahai baten inguruan edo kalean, nahiago duten moduan.

Berriro ere mila esker eta indarrak batu hurrengo hiru hilabeterako!

Hezkuntzan STEILAS!

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus